

HEOko azterketa eredu – Euskara B1 – Irakurriaren Ulermena

1. ARIKETA

Aintzane Gorria borrokalaria nafarrari egindako elkarrizketatik 6 erantzun (1-6) dituzu alde batetik, eta galderak (A-H) bestetik. Zuk galderak eta erantzunak parekatu behar dituzu. 0 erantzuna adibidea da eta 2 galdera sobran daude.

<u>GALDERAK</u>	<u>ERANTZUNAK</u>
<p>X. <i>Iaz bulimia pasa zenuen. Nola zaude orain?</i></p> <p>A. Arrazoi ekonomikoengatik utzi zaitzute zokoratuta?</p> <p>B. Beste estatu batzuetako borrokalaria normal entrenatu daitezke?</p> <p>C. Beste kirol askotan kontaktua egonda ere, ez zaie debekurik jarri. Zergatik?</p> <p>D. Bulimia dela-eta, zer izan zen gogorrena?</p> <p>E. Dieta berezirik jarraitzen duzu Olinpiar Jokoak prestatzeko?</p> <p>F. Jendeak benetan badaki borroka librea zer den?</p> <p>G. Noiz erabaki zenuen borrokalaria izatea?</p> <p>H. Nola dago ikusia emakumezkoen borroka?</p>	<p>Aintzane Gorria <i>Borroka libre</i> izeneko espezialitatean diharduen nafarrak bulimia gaixotasuna pasa du. Behin errekeratuta, 2021eko Tokioko Olinpiar Jokoak prestatzen hasi denean, COVID-19 izeneko pandemiak entrenatzeko arazoak ekarri dizkio.</p> <p>0.- <i>Sendatuta. Konfinamendua oso ondo etorri zait ikusteko norberak bere burua zaindu eta maitatu behar duela. Psikologikoki lanketa handia egin dut, eta egia esan, konfinamendua egoera onean bukatu dut. Fisikoki ez zait horren ongi etorri, baina guztioi bezala.</i></p> <p>1.- Arazoa onartzea eta laguntza eskatzea. Kaltea neure buruari egiten nionez, ez nuen lesio bat bezala ikusten. Oso errudun sentitzen nintzen, eta gurpil zoro horretan sartuta jarraitu nuen, geroz eta okerrago. Azkenean laguntza eskatu eta esnatu egin nintzen.</p> <p>2.- Beste inon ez da halako geldialdirik izan. Espainiarekin batera, Italia izan da okerren egon den herrialdea, baina jada bi hilabete daramatzate normal lan egiten. Eta Txinaren kasua adierazgarria da: ez dira gelditu, ezta pandemiak gogor jotzen zuenean ere.</p> <p>3.- Guk kontaktu gehiago dugu, eta hori oso gaizki ikusia dago. Hortaz, debekatu egin dute, eta kito. Eskuak garbitzeko modurik errazena da. Baina futboleant, saskibaloiant edota eskubaloiant ere kontaktu fisiko handia dago. Eta ikusi dugu, futboleant adibidez, kasu bat dagoenean, talde ia osora pasatzen dela gaixotasuna. Gauzak orain horrela daude, eta ohitu egin behar dugu.</p> <p>4.- Ez dakit diruagatik den, edo utzikeriagatik. Judoak adibidez diru asko mugitzen du, eta lizentzia pila dauzka Espainian. Baina gu bezala daude. Arazoa kontaktu kirol guztiek dute, ez borroka libreak bakarrik. Judoa ez da minoritarioa, eta arazo bera izan du.</p> <p>5.- Jendeak uste du nik egiten dudana telebistaz ikusten den antzerki hori dela, <i>Pressing Cath</i>-eko borrokariet egiten dutena, alegia. Hor uste dut badutela errua gorputz heziketako irakasleek. Kirol olinpikoak zeintzuk diren behintzat irakatsi beharko lukete.</p> <p>6.- Badago ni borrokalaria naizela jakitean harritzen den jendea. Oso femeninoa omen naiz borrokatzeko. Halako gauzak entzuten ditut oraindik, harrigarria bada ere. Dena den, uste dut pixkanaka ari dela normalizatzen emakume borrokariaren irudia. Bestelako kultura duten tokietan gutxietsia izan naiz, baina hori ere joango da aldatzen.</p> <p style="text-align: right;"><i>Eñaut Agirrebengoa. Argia astekaria. (moldatua)</i></p>

Erantzunak	0	1	2	3	4	5	6
Galderak	X						

2. ARIKETA

Iruñeko Media Luna parkean txakur-kakekin duten arazoari buruzko testu bat irakurriko duzu. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenb.) bezala.

Txakur-kakak Media Luna parkean

Txakurra parkera atera eta hark egiten duen kaka biltzea da txakur-jabeen betebeharrerako bat, baina, askotan, kaka belardian uzten dute. Hiri askotako arazoa da hori, batez ere lorategietan lan egiten duten lorezainena. Arazo hori aspaldian sufritzen dute Iruñeko Media Luna parkean lan egiten duten udaleko lorezainek. Txakur kaken artean lanean aritzeaz nazkatuta, arazoaz ohartarazteko lorategian zeuden txakur kaka bakoitzaren ondoan banderatzko gorri bat jarri zuten joan den astean. Goiz batean bakarrik, berrehun jarri zituzten.

Txakur kaka gehienak parkeak dituen sarrererako berdeguneetan egoten dira. Txakur kakak arazo estetiko dira, noski, baina ez hori bakarrik, zikinkeria ere sortzen dute. Media Luna parkean, gainera, arazo nagusia da bertan ez dagoela txakurren kakak botatzeko zaborrontzirik. Jende askok biltzen ditu kakak, gehienek, baina bada lan hori egiten ez duenik ere, zaborrontziak falta direlako edo, besterik gabe, nahi ez duelako. Horregatik, kakak pilatzen joaten dira.

Arazo estetikoa izateaz gain, biltzen ez diren kakak osasunerako kaltegarri dira. Hezetasunarekin kakak usteldu egiten dira. Desegitean, usain hori arnastea toxikoa izan daiteke gizakiontzat. Hostoak biltzen edo belardiak ongarritzen ari direnean lorazainek arnastu dezakete. Parkeko lorategietan haur asko ibiltzen dira, jolasten. Horientzat ere kaltegarria izan daiteke. Ez hori bakarrik: udazkenean zuhaitzetatik erortzen diren hostoak biltzeko haizea emateko makinarekin ari direnean kakak belardi osoan zehar barreiatzen dira, eta horrek zikinkeria gehiago sortzen du.

Iruñeko udal ordenantzak txakurrak uzten duen kaka biltzera behartzen du txakurraren jabea, baina askok ez dute kasurik egiten. Dena dela, arazoa ez da oraingoa. 2008tik lorazainak esan eta esan ari dira udalari txakur kakak biltzen ez dituen jabeari isunak jartzeko, baina udalak ez du kasurik egiten. Egunez eta noizbehinka gauez ere udaltzainak ibiltzen dira lorategiaren inguruan, baina ez dute isunik jartzen.

Egun argiz gehiago biltzen dira kakak, baina gauez errazagoa da txakurra aske utzi eta kakak jaso gabe uztea. Inork ez ditu ikusten-eta. Horregatik lorezainek, banderatzoeekin batera, lorategiko zuhaitz batzuetan kartelak ere jarri dituzte protestaren berri emateko.

Txakur kaken pilaketaren arazoa ez da Media Luna parkekoa bakarrik, hiriko beste berdegune batzuetan ere antzeko egoeran daudela salatu dute: Takoneran eta Redingo gotorlekuaren atzealdean, esaterako.

Irene Arrizurieta. Berria (moldatua)

0. Txakur-kaken ugaritasuna Media Luna parkean...

- a) bertan lan egiten dutenen arazoa da.
- b) hara paseatzera doazenen arazoa da.
- c) hiritar guztien arazoa da.

7. Kakekin nazkatuta, lorezainek zera erabaki zuten...

- a) txakur kaka bakoitza bandera batekin seinalatzea.
- b) txakur-kaka guztiak bandera handi baten gainean jartzea.
- c) txakur-kaka guztiak pilatu bandera baten azpian.

8. Media Luna parkean txakur kakak arazo dira...

- a) jabeek ez dituztelako zaborrontziak erabiltzen.
- b) txakur asko eta zaborrontzi gutxi dagoelako.
- c) zaborrontzirik ez dagoelako, batez ere.

9. Udazkenean kaken arazoa handiagotu egiten da.

- a) hezetasunak kakak ezkututzen dituelako.
- b) lorezainek kakak lorategian zehar zabaltzen dituztelako.
- c) ume gehiago dabiltzalako parkean jolasten.

10. Zer eskatzen diote lorezainek udalari?

- a) gauez parkeko sarrerak ixtea.
- b) kakak biltzen ez dituztenak zigortzea.
- c) udaltzain gehiago bidaltzea.

11. Ze beste neurri hartu dituzte udaltzainek?

- a) banderak kendu eta kartelak jarri dituzte.
- b) Enkartelada bat egin dute parkeko sarreran.
- c) kartelak jarri dituzte parkeko toki batzuetan.

12. Txakur-kaken arazoa Iruñian...

- a) beste parke batzuetan ere nabaritu dute.
- b) hirian ez da ikusten beste inon.
- c) Media Luna parkean bakarrik gertatzen da.

Galderak	0	7	8	9	10	11	12
Erantzunak	a						

3. ARIKETA

Maria Callas opera kantariari buruzko testu honek sei hutsune ditu. Zuk lotu kendutako esaldi zatiak (A-H) hutsuneekin, 0 adibidean bezala. Bi esaldi zati sobran daude.

Maria Callas, diva greziarra

XX. mendeko opera-kantari ospetsuenetarikoa izan zen Maria Callas. Erregistro desberdinetan kantatzeko gaitasuna zuen, baita interpretatzen zituen pertsonaien emozioak ikusleei adierazteko ere. ____0____, operatik urruti zebilen jende asko liluratu eta erakarri zuen.

Migrante greziarren alaba, Maria Ana Sofia Cecilia Kalogeropoulous New Yorken jaio zen 1923ko abenduaren 2an. Aitak aldatu egin zuen abizena, eta Callas jarri, esateko eta irakurtzeko ____13____.

1929an gurasoak banandu egin ziren eta Maria, amarekin eta ahizparekin, Greziara joan zen. Atenasko kontserbatorioan hasi zituen lirika ikasketak.

Harreman zaila izan zuen amarekin: hark, nahi baino gehiagotan esaten omen zion gizona eta itsusia zela. Ahotsean zuen trebetasunaz ____14____, etengabe ahizparekin konparatzen omen zuen hura politagoa zela adieraziz.

40ko hamarkadan egin zuen debuta, eta Grezian berehala lortu zuen arrakasta. 1945ean, II. Mundu Gerra bukatu zenean, New Yorkera itzuli zen, aitarengana. Abeslari gisa karrera jarraitu zuen, baina ez zuen edozein paper onartzen. Hala, Europara itzuli zen eta 1947an egin zuen bere bizitza aldatu zuen protagonista papera: *La Gioconda*. *La Arena di Verona* anfiteatroan izan zen. Handik aurrera, *La Callas*, *La Divina* eta ____15____ egin zen ezagun.

50eko hamarkadan ____16____ ibili zen, pertsonaia asko interpretatuz. Horietako batzuk gordeta geratu dira betiko.

1953an gorpuzkera aldaketa handia egin zuen: 40 kilo ____17____, eta ospe handiko diseinatzaileei eskatu zien bere arropak josteko. Agertokian, itxura elegante horrekin, mito gisa agertzen hasi zen.

Irudi berriarekin batera maitasun istorio berria etorri zen: Aristoteles Onassis. Maria erabat maitemindu zen berarekin. Horregatik, Onassisek harremana hautsi zuenean, operaren mitoak kolpe handia hartu zuen. Bere ahotsa indarrrik gabe geratu zen, eta agertokian ez zuen lehengo distirarik.

Maria Callas ez zen lehengo ia izatera itzuli: batetik, gorputz aldaketarekin ahotsak indarra galdu zuen; bestetik, ohitura desegokiak zituen; ____18____, depresiorako joerak ez zion lagundu. Divaren karrera artistikoaren gainbehera hasi zen.

Londresko *Covent Garden*-en igo zen agertokira azkeneko aldiz 1965ean. Hala ere, ez zion kantatzeari utzi eta 1974an Europan eta Ameriketean bira bat egin zuen Giuseppe Di Stefano tenorearekin. 1977ko irailaren 16an, bihotzekoak jota, bat-batean isildu zen bere ahotsa betiko.

ESALDI ZATIAK

X. MITO BIHURTUTA

- A. ARRAKASTAZ ARRAKASTA
- B. EGON ARREN
- C. ERRAZAGOA ZELAKO
- D. ETA AZKENIK
- E. GALDU ZITUEN
- F. GAZTETAN HASTEA
- G. HORRELAKO IZENEKIN
- H. OHARTU GABE

Hutsuneak	0	13	14	15	16	17	18
Esaldi zatiak	X						

4. ARIKETA

“Ezpain gorrien indarra” izenburua duen testuak zortzi hutsune ditu. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenb.) bezala.

Ezpain gorrien indarra

____0____ pasatzen ez den produktua eta modaz pasatzen ez den kolorea, horixe da ezpainetako gorria. Baina ez hori bakarrik. Frogatu da ezpainak gorritz margotzeak segurtasuna eta ____19____ botere-sentsazioa ematen diola erabiltzaileari.

Antzinako kontua da ezpainak margotzea. Hasieran harri gorriak txikitu eta produktu toxikoekin nahasten zituzten koloratzailea lortzeko. Osagai toxikoekin egindako margoa erabiltzeagatik hil ziren bat baino gehiago. *Heriotzaren musua* terminoa ere garai horretakoa da, ____20____, margotutako ezpainak musukatzen zituzten pertsonak ere hil egiten ziren.

Denboran aurrera eginez, ____21____, osagaiak eta forma aldatzen joan dira. Mesopotamian gizon zein emakumeek margotzen zuten aurpegia, eta harribitxiak erabiltzen zituzten ezpainetako kolorea lortzeko. Egiptoarrek, berriz, intsektuak txikituta lortzen zuten kolorea.

Europan, Ingalaterrako Isabel I. erregina hasi zen erabiltzen XVI. mendean. Garai horretan goimailako emakumeek eta aktoreek erabiltzen zuten. ____22____, ordea, justu kontrakoa gertatu zen, eta zenbait tokitan ezpainetakoa debekatu egin zuten. Erabiltzen zutenak sorginak zirela eta gizonak tentatu nahi zituztela esaten zuten.

Baina ezpainetako gorriak protagonismo berezia izan zuen II. Mundu Gerran. Winston Churchill, Erresuma Batuko lehen ministroak ____23____ produktuen artean sartu zuen ezpainetakoa. Berak zioenez, beharrezkoa zen herritarren moralari eusteko.

Churchill konturatu zen horrelako gauza sinple batek emakumeak indartsu eta boteretsu ____24____, eta eder: bai herrietan geratu ziren emakumeak, bai frontera joan zirenak. Eta sentimendu horiek krisi-garaian oso baliotsuak zirela iruditu zitzaion.

Aipatutakoaz ____25____, Churchillek ezpainetako gorria bultzatzeko beste arrazoi bat ere aipatzen da: Hitler etsaia zuen, eta jakina zen Alemaniako diktadoreak gorroto zituela kosmetika-produktuak. Gauzak horrela, garaiko kosmetika-enpresek ____26____ zuten aliatuek bultzatutako kanpainarekin eta ezpainetako enperatzaileek sortu zituzten: erregimentuko gorria edo borrokarako gorria izenekin, esaterako.

Ikasbil (moldatua)

0. _____ pasatzen ez den produktua eta modaz pasatzen ez den...

- a) Dendaz
- b) Hortik
- c) Modaz

19. eta _____ botere-sentsazioa ematen diola erabiltzaileari.

- a) nolabaiteko
- b) nolako
- c) nonbaiteko

20. _____, margotutako ezpainak musukatzen zituzten pertsonak ere...

- a) izan ere
- b) izanda
- c) izateko

21. Denboran aurrera eginez, _____, osagaiak...

- a) oraingoaz
- b) ordea
- c) ostean

22. _____, ordea, justu kontrakoa gertatu zen,..

- a) Gainera
- b) Gainetik
- c) Gerora

23. lehen ministroak _____ produktuen artean sartu zuen

- a) ezinbesteko
- b) ezinezko
- c) gutxieneko

24. ...gauza simple batek emakumeak indartsu eta boteretsu _____

- a) sentiarazten zituela
- b) sentiarazten zituztela
- c) sentiarazten zuela

25. Aipatutakoaz _____, Churchillek ezpainetako gorria...

- a) baino
- b) gain
- c) goizienik

26. ... garaiko kosmetika-enpresek _____ zuten aliatuek bultzatutako kanpainarekin

- a) alde egin
- b) bat egin
- c) negar egin

Hutsuneak	0	19	20	21	22	23	24	25	26
Erantzunak	C								